

Sagardogunea aztergai, Foru Aldundiaren eta Hernaniko Udalaren arteko lehen bileran

Kronika - Erredakzioa 2007-11-14 01:00



Markel Olano Diputatu Nagusia eta Marian Beitialarrangoitia Alkatea izan ziren bileran. Andoni Amonarraiz EAJ-PNVko zinegotzia ere bertan izan zen, eta baita sagardogileen elkarteko arduradunak eta proiektua egin duten teknikoak ere. Beste gai asko ere aipatu zituzten atzo.

Markel Olano Gipuzkoako Ahaldu Nagusia Hernaniko udaletxean izan zen atzo, eta Marian Beitialarrangoitia Alkatearekin bildu zen, Hernaniko Udala eta Foru Aldundiaren arteko legegintzaldiko aurreneko bileran. Bileran Hernaniko Udalaren egitasmoei buruz aritu ziren, eta batik bat, Sagardogunea proiektuari buruz, hori izan baitzen atzoko bilera egiteko abiapuntua.

Sagardogunea proiektua

Esan bezala, Sagardogunea proiektua azaldu zioten atzo Markel Olano Ahaldu Nagusiari, Marian Beitialarrangoitia Alkateak, Andoni Amonarraiz EAJ-PNV alderdiko zinegotziak eta sagardogileen elkarteko arduradunek. Bileran izan ziren, baita ere, Sagardogunea proiektua garatu duten teknikariak ere. Beitialarrangoitiak Kronikari jakinarazi dionez, Udalaren asmoa zen Diputazioak proiektu honen aurrean zein asmo duen jakitea. 'Proiektu haundia da Sagardogunearena, eta ezertan hasi aurretik, jakin nahi dugu Diputazioak lehen agindu zuen finantziarioak bere horretan jarraitzen duen edo ez. Hori jakin ondoren ikusiko dugu gaiari nola heldu'. Andoni Amonarraizek Kronikari honela azpimarratu zion, 'interesantea iruditu zait bilera. Gu proiektuarekin oso konbentzituak gaude eta Diputazioaren jarrera proiektua finantziatzea bada, Jaurlearitzak ere bide hori hartu dezake; EAE-ANVk ere interesa azaltzen badu eta proiektua bultzatzen badu, denok batera aterako guke aurrera'.

Beste zenbait gai

Beste zenbait gai ere aipatu zituzten atzoko bileran: Zaharren Egoitzako anpliazioa, trafikoari buruzko zenbait arazo, Arau Subsidiarioak, AMR Refractarios kokatuta dagoen lurren egoera, eta abar. Dena dela, gai horiek gain-gainetik aipatu zituzten, eta aurrerago egingo dituzten bileretan zehatzako aztertuko dituzte. Bilera bukaeran bi aldeek oso positibo jo zuten Udalaren eta Diputazioaren arteko lehendabiziko kontaktua, eta aurrera gehiago egiteko asmoa azaldu zuten.

[Gizartea](#)

[Erantzun](#) ▼



Ikusienak



[Olatzena, irrintzirik fin eta alaiena](#)

[Koronabirusa etxetik](#)

Kronika - Erredakzioa

mar 31, 00:00

[Hernani](#)



[Ortzadarra leihotik leihora, kolore zipriztin eta bertsotan](#)

[Koronabirusa etxetik](#)

Kronika - Erredakzioa

mar 31, 11:59

[Astigarraga](#)



[Datuen eguneraketa: Koronabirusa Euskal Herrian](#)

[Koronabirusa](#)

Kronika - Erredakzioa

mar 31, 13:33

[Urumea](#)



[Olatz irabazle, Lizeagako irrintzi lehiaketan](#)

[Koronabirusa etxetik](#)

Kronika - Erredakzioa

mar 30 [Hernani](#)



[Bertsotan: Ekai Legorburu](#)

[Koronabirusa etxetik](#)

Kronika - Erredakzioa

mar 31, 17:46

[Hernani](#)



[Zozomikoteak pasa arte udaberririk ez, atzoko elur malutek erakutsi zuten moduan](#)

Kronika - Erredakzioa

mar 31, 00:00